

## Skoda Guneak bederatzi kontzertu eskainiko ditu Alderdi Ederren

53. Heineken Jazzaldiak bederatzi kontzertu programatuko ditu Alderdi Ederren kokatutako Skoda Gunean, hau da, kontzertu gehiago bat eskainiko da agertoki horretan, iazko programazioarekin alderatuta. Horrela, aurrera egingo du Skodaren – Heineken Jazzaldiko auto ofiziala– eta Jazzaldiaren arteko lankidetzak emankorrak.

Doako sarrera izango duten kontzertu horietan artista nabarmenak igoko dira oholtzara, hala bertakoak (Víctor de Diego, Old School Funky Family, Sara Mansilla, Voltaia, The Disappointments, Albericola) nola nazioartekoak (Dick Oatts, Julian Lage, Derek Brown, Trojan Sound System), guztiak ere “Jazzetik Soulera” lemapean.

Bereziki aipagarria da Dennis Alcapone eta Dawn Penn-ek Trojan Sounds System-ekin batera emango duten kontzertua: jamaikar kantagintzako arrakasta historikoen errebasoa egingo dute eta kontuan izan agertoki honetan soilik gozatu ahalko dela ikuskizun horretaz. Gauza bera esan daiteke Old School Funky Family, ikus-entzuleak dantzan jartzen dituen Iparraldeko talde jostagarriari buruz.

Jazzak ordezkapen bikaina izango du Dick Oatts & Víctor de Diego Quintet, Julian Lage Trio, The Disappointments eta Albericola taldeekin, azken hori bere kubatar ukituarekin.

Derek Brown da aintzat hartu beharreko beste izen bat, saxoa jotzeko duen modu bitxiagatik, zeinari Beatbox Sax deitu baitio Brownek berak.

Euskal talentu gazteak ere bi ordezkari on izango ditu, Sara Mansilla eta Voltaia.

# 53 Heineken® JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
UZTAILA / JULIO / JULY  
25-29 2018

Honako hau da Skoda Gunearen programazio osoa:

## Uztailak 25

19:30. **Old School Funky Family**

22:00. **Dick Oatts & Víctor de Diego Quintet**

## Uztailak 26

19:30. **Derek Brown: Beatbox Sax**

22:00. **Julian Lage Trio**

## Uztailak 27

19:30-23:30. **Trojan Sound System ft. Dennis Alcapone & Dawn Penn**

## Uztailak 28

19:30. **The Disappointments**

22:00. **Albericola**

## Uztailak 29

18:30. **Voltaia**

21:00. **Sara Mansilla**

## **Old School Funky Family**

**Paul-Antoine Roubet** (saxo sopranoa), **Illyès Ferfera** (saxo altua), **David Mimey** (saxo tenorra), **Julius Buros** (saxo baritonoa), **Sébastien Desgrans** (eskusoinua), **Paul Vernhères** (gitarra), **Pierre Latute** (sousafonoa), **Jérôme Martineau-Ricotti** (bateria)

Old School Funky Familyk hamar urte baino gehiago daramatza, Iparraldean oinarri harturik, bere funk, jazz eta afro-beat erritmoen demoniozko nahasketa zabaltzen mota guztietako jaialdietara, Heineken Jazzaldia barne. Bai kaletik doazenean eta bai agertoki batera igotzen direnean, zortzikote honetako kideek olgeta musikal bozkariotsua bermatzen dute.

## **Dick Oatts & Víctor de Diego Quintet**

**Víctor de Diego** (saxo tenorra), **Dick Oatts** (saxo altua), **Alberto Palau** (pianoa),  
**Mark Hodgson** (kontrabaxua), **Stephen Keogh** (bateria)

# 53 Heineken® JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
UZTAILA / JULIO / JULY  
25-29 2018

Ezinbesteko jazzmen horietako bat dugu Dick Oatts, jazzaren jarraitasuna bermatzen duten horietakoa. Maisuen maisutzat daukate hainbatek, New Yorkeko Vanguard Jazz Orkestrako zuzendari gisa egin zuen lanagatik edota Jerry Bergonzi edo Joe Henderson bezalako izarrekin egin zituen elkarlanengatik. Víctor de Diego erreferentziatzko saxofonista da euskal jazzean; bere diskografia eta ibilbidea dira artista honen maila musikalaren lekuko onenak.

## **Derek Brown: Beatbox Sax**

**Derek Brown** (saxoa)

Saxofoiaren benetakoa da Derek Brown, izan ere, ñabardura berriak ateratzen dizkio musika-tresna beteranoari, bere teknika berritzaileei eta arnasketa zirkularra menderatzeari esker. Jazzaren lirismoarekin edo funkaren intentsitatearekin saxoari putz egiteaz gainera, perkusioko tresna bat balitz bezala erabiltzen du, eta esaldi abestuak ere tartekatzen ditu han-hemenka. Eraitza indar erritmiko harrigarrikoa da.

## **Julian Lage Trio**

**Julian Lage** (gitarra), **Jorge Roeder** (baxua), **Eric Doob** (bateria)

Julian Lage artean haurra zela egin zen ospetsu gitarra akustikoarekin. Haren talentua *Jules at 8* film dokumental laburrean eman zen aditzera, zeina 1997ko Oscar sarietarako izendatua egon baitzen. Gary Burton bibrafonista handiak bere ikasletzat hartu zuen. Jim Hall, Béla Fleck, Fred Hersch eta Nels Clinerekin ere lan egin du. Orain, 30 urterekin, artista finkatua da Lage, tximista baino azkarrago jotzen du bere Fender Telecaster gitarra, baina ez pentsa haren lana teknika soila denik, aldiz, sentsibiltate handia dago azpian.

## **Trojan Sound System ft. Dennis Alcapone & Dawn Penn**

Trojan diskoetxeari egindako omenaldia, 50 urte bete baititu reggaea eta jamaikar musika eskainiz, Londresko bere egoitza zentraletik. Musika horretako bi izar handi, Dennis Alcapone eta Dawn Penn, Trojan Sound System-era gehituko dira Karibeko musikaren zigilu mitiko horren arrakasta guztiak gogoratzeko. Trojanekin grabatu zuten artista gogoangarrien artean daude Desmond Dekker, Toots & The Maytals, Jimmy Cliff, Bob & Marcia eta beste hainbat.

# 53 Heineken® JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
UZTAILA / JULIO / JULY  
25-29 2018

## The Disappointments

**Alberto Navascués** (Hammond organoa), **Jokin Pallarés** (gitarra elektrikoa), **Jon Uribeetxeberria** (bateria), **Mikel Navascués** (baxua)

Baxu, gitarra, bateria eta Hammond organoz osatutako formazio klasikoa. Soul, be-bop, blues, Northern Soul eta Modjazz estiloen eraginak nabarmentzen dira taldearen lanetan. The Disappointments (Desengainuak) batez ere Hammond organoaren soinu oinarritu eta musika beltzaren eraginak islatzen dituen talde bat baino zerbait gehiago da. Estereotipo artistikoekin eta jo beste erremediorik ez dagoen hainbat lan musikalekin asper-asper eginda, ikusirik egungo gaztediak zer nolako ideia duen musikariei buruz eta kalitateko dantza-aretoen abandonu tristeaz oharturik, behin horrekin guztiarekin "desengainatu" ostean, ez zuten beste biderik aurkitu berriro zutitu eta goian aipatutako joera horietako lan onenez osatutako errepertorio bat osatzea baino. Konposizio propio horietan, Jimmy Smith, Lou Donaldson edo Booker T. & The MG's-en eraginak antzematen dira; beste batzuetan, berriz, zinemako hainbat soinu beltzekin lotzen diren doinu eta erritmoak entzun daitezke, *Shaft*, *Bullitt*, *Dirty Harry* edo *Starsky and Hutch* filmetakoak barne direla.

## Albericola

**Lucas Tautin** (bibrafonoa), **Nasim López** (bateria), **José Ramón García "Bibiki"** (gitarra), **Víctor Vega** (tronpeta), **Eolo Andino** (saxoa), **Franco Cavalleri** (pianoa), **Ledian Mola** (kontrabaxua)

Ledian Mola, proiektuaren liderra, Kuban jaioa da, hainbat musika-fusioren uhartean, hain zuzen. Biolina jotzen ikasi zuen Bola de Nieve kubatar musikariaren kontserbatorioan eta Habanako "Teatro Nacional" eta Amadeo Roldán Antzokiko orkestra gazteetako kide izan zen. Emanaldiak partekatu ditu Manuel Machado, Chucho Valdés, Yelsy Heredia, Joshua Edelman eta Barry Harrisekin. Gaur egun, kontrabaxuko goi ikasketak egiten ari da Musikenen.

## Voltaia

**Unai Eizagirre** (baxua, ahotsa), **Pablo Sanchez** (bateria), **Ion Brakamonte** (gitarra)

# 53 Heineken® JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
UZTAILA / JULIO / JULY  
25-29 2018

Voltaia 2014an sortu zen Zumaian. Urte horretan argitaratu zuten lehen diskoa. 2015eko udaran *Medusa* bigarren diskoa kaleratu zuten. 80 kontzertu inguru eskaini zituzten lan honekin. Jon Duran baterijoleak taldea utzi eta bere tokia Pablo Sanchezek bete zuen. Hasieratik 70eko hamarkadako rock doinuen eta stoner rock-aren eragina erakutsi dute Zumaiaiko taldearen kantuek. 2018an, *Erortzen* disko berria argitaratu dute. Zestoako Gaztain estudioetan grabatu dute eta Eñaut Gaztañaga (Grises) arduratu da ekoizpenaz.

## Sara Mansilla

**Sara Mansilla** (ahotsa, gitarra), **Pablo Costas** (teklatuak), **Daniel Vallejo** (baxua), **Ander Alonso** (bateria)

Sara Mansillaren ibilbide profesionala erakunde desberdinek antolatutako ekitaldietan garatuz joan da: Olatu Talka, Dkluba, FNAC, Heineken Jazzaldia, Jazpana, Musika Parkean eta Kutxa Kultur Festibala. Gainera, bi bigband desberdinetan parte hartu du, Emusik '16 eta Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra '17, abeslari bezala bietan. Aurten Kutxa Kultur Residentzia lortu du, eta honek kontzertu gehiago emateko aukera eman dio. Bestalde, Musikene-n Jazz-Abeslari formakuntza jasotzen ari da. Mansillaren proiektu musikala bere abesti propioez osatua da, blues, jazz eta funkaren eragin batekin.